

Argazkia enkuadratzen. HELBURUAK

SAKONTZE MATERIALA 3

- Pentsamendu kritiko eta sortzailerako aukera (espazio eta denbora) eman.
- Errealitatearen ikuspegi anitza eta globala defendatu.
- Iritzi eta argumentazioaren prozesu eraikitzaileaz jabetu.
- Gatazka sozio/afektibo/kognitiboaren aurrean pertsona sortzailea izateko entrenamendua egin.

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Edozein gaia hartuta, argazki esanguratsuak aukeratzen dira eta gelan dagoen enkuadratzeko kartulinar jartzen dugu hausnarketa prozesua jorratzeko.

Galderak badoaz egiten eta norberak duen paperean apuntatzen da edo, taldeka egiten bada, guztion artean paper berean.

Horma-irudira eramaten dira emaitzak ozenki esaten diren bitartean.

Ateratzen diren gaiak edota arloak beste momentu batean lan egiteko eta sakontzeko eremuak dira eta horretarako ondo jaso behar dira emaitzak.

Azpimarratzekoa:

-Parte hartzen ari gara, sortze-komunikatze prozesuan murgildurik, elkarrekin egiten ari gara eta ez gara kontsumitzaile hutsak.

-parte-hartzaileengan gatazka sozio/kognitibo/afektiboak sortzean bi gauza lortzen ditugula: hezkuntzaren "isilak" azalaraztea eta argumentazioaren prozesuan laguntzea

-gatazkei aurre egiteko mekanismoak ari gara lantzen, adibide positiboak bilatu behar ditugula.

-ardurak bereganatu behar ditugula, ni neu naiz eta honen erantzulea naiz alde honetan nagoelako. Kontuan izan non kokatzen den jendea eta norberak lekua hartzeko izaten duen erraztasun edo zailtasuna.

-Balioak azpimarratu: justizia, ekitatea, boterearen interesak eta egiturak, arazoaren hurbiltasuna...

-Esperientzien ikuspegi orokorra eta anitza defendatu: alternatibak eta ondorio desberdinak (haria...)

Esteka:

http://www.ehu.es/mundilab/pag/eusk/laboratorio/h_pedagogicas/imagen.html#